

## AZKEN BERRIAK IRAKASKUNTZA PRIBATUAN

Aurreko astean Hezkuntza Sailak sektoreko langileentzako informazio interesgarria plazaratu zuen EHAAn. Sailak ikastetxeak finantzatzeko diren eskola itunei dagokien modulua igo ditu irailaren 1etik aurrera eta derrigorrezko ikasmailetan ordezkapenatarako zegoen dirua %25 igo da. Jasotzen duen agindua hauxe duzu:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/10/1604296e.pdf>

Baliteke -eta halaxe diote patronalek- datorren urtarrilaren 1etik aurrera aholkulari/orientatzailea kontzeptuari dagokion kantitatea ere handitzea %90eko finantziatzera iritsi arte. 2015 gerostik ordezkapenatarako diru-partida %2tik %4ra igo da eta %50etik %70era (urtarriletik aurrera %90) aholkulari/orientatzaileari dagokien finantziazioa. Horixe da administrazioak eta patronalek, sindikatuak alboratuz, diseinatutako bide-orria. Bi igoera horiek aintzat hartu beharko dira 2017an ordaindu beharreko zorraren zati kalkulatzeko eta bultzatu beharko lituzke patronalak bai zorraren kontuan urratsak ematera, bai hitzarmen berriko negoziazioak ere aurrera egin dezan.

Uztaileko Batzorde Paritarioan **steilasek** adierazi zuen 2017tik aurrera zorra ordaintzeko kalkulatzeko patronalaren proposamenari alternatiba aurkezteko asmoa. Helburu bikoitza genuen: negoziatio blokeo egoeratik ateratzea eta ikastetxe guztietan zorra kobratzen hastea, kantitate txikia bada ere eta etenik gabe. Gure ezinegona beste sindikatuekin partekatu eta gero proposamen bat adostu genuen eta patronalei aurkeztu genien urriaren 10ean izandako bileran. Patronalek ez zuten begi txarrez ikusi sindikatuen proposamena, beraz, badirudi **steilasek** asmatu egin zuela nabarmen hobe zitekeen orduko akordioa sinatzeari uko egin zionean. Azaroaren hasieran izango den Batzorde Paritarioan gaia ixten saiatuko gara.

Beste aldetik EHAAn plazaratu dute 2016-17 eta 2017-18 ikasturte bitartean datozen urteetarako ikasgela mailaka zehazten duen ikastetxeen planifikazioa. Bertan 2016-17ko ikasturtean izango diren itundutako ikasgelen behin-betiko zerrenda ere agertzen da. Hezkuntza Sailak LOMCeri kasu egin dio eta 6 urteetara luzatu du plangintza. Zure ikastetxeko egoera ikusteko jo ezazu helbide honetara:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/10/1604358e.pdf>

Azkenik, itunpeko ikastetxe pribatuei Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, berariazko hezkuntza-errefortzuko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan, ituntzeko unitateak 2016-2017 ikasturterako zehaztapena ebazten duen agindua ere argitaratu dute. Hemen ikus dezakezu:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/10/1604358e.pdf>

**Oharra: Ezin baduzu era zuzenean lotura ireki, kopia helbidea zure nabigatzailean.**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus